


2.- Aztergunea

Helbidea: Tuterakalea, 10. Aintzinako *Auzolan* denda.

Harri mota: **Kareharri buztintsua.**

Fosilak: **Itsas trikuak** Phylum: *Echinodermata*

Clase: *Echinoidea*



Itsas trikuen oskola kaltzio karbonatozkoa da eta simetria pentagonalak dauka; gorputz esferikoaren inguruan, hamar banda arantzadunak (irudian, arantza-oinarriak besterik ez dira ikusten) eta, txandakatuta, beste hamar zulodunak (zulo-lerroekin) ikusten dira.

Kontuan hartzekoa da, harlauzetan bizidun hauen irudi bidimentsionalak (zeharko ebakidura) ikusten direla; beraz, itsas trikuaren gorputza eta plano gorriaren arteko *ebakidura azala* ikusiko dugu, eta batzutan apurtuta, zatituta.

1. Irudia: Itsas trikuak, zeharko ebakidura.



2. Irudia: Itsas trikuak eta oskol zati txiki batzuk.



3. Irudia: Hiru itsas trikuren gorputzaren zeharkoko ebakidura.

